



URRETXUKO TOKIKO AGENDA 21
2. dokumentua. TOKIKO AGENDA 21 EN
IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA
ETA JARRAIPEN PLANA

Dokumentuaren izenburua:	URRETXUKO TOKIKO AGENDA 21 Tokiko Agenda 21en Diagnostikoa
Laguntza teknikoa:	Onintza Andrés. Haizea Ikerketa S.L Leire Sarobe. Haizea Ikerketa S.L Maidier Etxaide. Haizea Ikerketa S.L
Hartzailea:	Urretxuko udala
Koordinazioa:	Maila politikoan: Oihane Zabaleta Mujika Unai Badiola Urrate Jon Altolagirre Askasibar Maila teknikoan: Amaia Lizarralde. Garapen Iraunkorreko Teknikaria
Emate data:	2015ko apirila

AURKIBIDEA

SARRERA	2
<i>Aurrekariak eta testuingurua</i>	2
<i>Helburuak</i>	2
<i>Lanerako programa</i>	2
<i>Dokumentuaren egitura</i>	2
IKUSPEGIA	2
2015-2022 IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA	2
JARRAIPEN PLANA	2
<i>Helburua</i>	2
<i>Operazioak</i>	2
<i>“MUGI 21” Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan</i>	2
<i>Nork hartzen du parte planaren kudeaketan?</i>	2

SARRERA

Aurrekariak eta testuingurua

Bere Tokiko Agenda 21en berrikuspenaren esparruan, Urretxuko udalak, 2014an **Tokiko Ekintza Plan 21en oinarriak ezartzen dituen diagnostiko txostena** egin du.

2014-2015 urtean, Urretxuk bere **Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plan berria** osatu du. Plan honek, Tokiko Agenda 21en oinarritzko elementua, aurrez definitutako Iraunkortasun Diagnostikoarekin koherentzia eta beronekiko trazabilitatea mantenduz, iraunkortasunaren 3 dimentsioak hartzen ditu (ingurumena, ekonomia eta gizartea) eta gako diren gaikako arloak baitaritzen ditu udalerrriaren errealitatera era zabal eta global batean hurreratzearren.

Plan hau udalerrriak **jasangarritasunarekiko duen estrategia eta konpromisoa** da.

Planaren **iraunaldia 8 urtekoa** da, hau da, 2015 -2022 aldia. Honela, epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

Helburuak

Ekintza Planaren formulazioko lan honetan bilatzen diren **helburuak** ondokoak dira:

1. Urretxuren datozen 8 urteei begirako iraunkortasun estrategia marraztu (2015-2022 aldia), udalerrigisa aurrerantz bideratzen duten ikuspegia eta helburuak hornituz, egungo egoera eta joeretatik abiatuz.
2. Planifikazio estrategikoko tresna bat diseinatu Urretxuren jardunbide iraunkorrerako konpromisoa definitu eta zehaztuko duena.
3. Udal kudeaketan erabilgarria eta aplikagarria den tresna bat sortu.
4. Plangintzarako tresna anitzak bat etortzera bultzatu, elkarren artean lotuz.
5. Udalerrri bezala datozen 8 urteetan landu beharreko ingurumen erronka eta ekintza nagusienak zehaztu.
6. Ekintza Planaren ondorengo kudeaketa ahalbidetuko duten beharrezko tresnak baitaratu.

Lanerako programa

Lan programa **5 fase** handitan zatitu da:

1. Proiektua abiarazi definizioa eginez eta martxan jarritz. Fase honen baitan daude prozesuaren aurkezpenerako bilera eta saioen ospatzea eta barne zein kanpoko eragileekiko (herritarrak eta

gizarte zein ekonomi eragileak) koordinazio eta partaidetza mekanismoak Tokiko Agenda 21en berrikuspenaren beharretara doitzea.

2. Planaren formulazio estrategikoa. Udallerriaren ikuspegia Planaren multzo osoari begira definitzeaz gain Planaren ezarpenaren amaieran erdietsi nahi diren xedeak definitzen dira eta helburu estrategiko zein operatiboak, eta ekintzak ere, zehazten dira.
3. Ekintzen ezaugarritzea burutzen da, Plana kudeaketa erreminta bat izateko adina zehaztasunez definitzen da.
4. Planaren jarraipen eta kudeaketarako tresneriaren diseinua.
5. Ekintza Plana eta Jarraipen Plana izenburua daraman 2. Txostenaren idazketa.

Tokiko Agenda 21ek, kontzeptu eta filosofiaz, berau osatu eta definituko duen **Udaletxeko pertsonal tekniko zein politikoaren barne partaidetza zein herritarren sektoreen multzo osoaren kanpo partaidetza prozesuak** izan behar ditu bidelagun.

Kalitatezko herritarren partaidetza ziurtatzearen, prozesuak informazio euskarri eta motibaziorako tresna gisa jokatu beharko duen **komunikazio estrategia** bat eduki behar du. Xede horrekin, prozesuaren gako uneetan aplikatu da, **Udaletxearen ohiko komunikazio kanalak** erabiliz.

Zamudioko Tokiko 21 Ekintza Planaren formulazioan zehar adierazitako faseetan zehar **barne zein kanpo partaidetza baitaratu eta artikulatu da** eta Udaletxeak egokitzen dituen ekarpenak ondoriozko txostenean sartu dira.

Beheko koadroan prozesuan zehar **garatu diren partaidetza jarduerak** xehetasun handiagoz deskribatzen dira.


MEKANISMOA	HELBURUAK	LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA
BARNEKO PARTAIDETZA		
Barneko lan saioa	Proiektua eta epeak antolatu zereginak eta ardurak esleituz, Tokiko 21 Ekintza Plan berrien ezaugarriak jakitera eman, eta ikuspegia definitu.	Berrikuspen prozesuko gobernu taldea
Batzorde informatiboak	Ekintzak proposatzea	Berrikuspen prozesuan inplikaturik dauden eragile politiko-teknikoei deialdia.
KANPOKO PARTAIDETZA		
Foroa 2015-03-31	LPE eskemaren aurkezpena, proposamenen bilketa eta lehentasunen identifikazioa	Goiekiko web orrian berria. Posta elektronikoa.

Dokumentuaren egitura

“2. Txostena: Ekintza Plana eta Jarraipen Plana” txosten hau jarraian adierazten diren ataletan egituratzen da:

- Ikuspegia
- IPE (Ildo Estrategiko – Programa- Ekintzak)
- Jarraipen Plana

IKUSPEGIA



2015-2022 IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA

I.E.1. HERRITARREN ESKURA DAGOEN TOKIKO ADMINISTRAZIO GARDEN, ERAGINKOR, ZEHARKAKO ETA PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO BATERANTZ

P.1.1. E-administrazio garden, eraginkor, hurbilago eta zeharkakoan aritzea

P.1.2. Tokiko Ekintza Plan 21aren kudeaketa aktiboa burutzea

P.1.3. Herritarren partaidetza ahalbidetzea eta sustatzea

P.1.4. Elkartegintza sustatzea eta sendotzea

I.E.2. LURRALDEA ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BATERANTZ

P.2.1. Hirigintza orekatua, barneratzailea, malgua, osasungarria eta partaidetzan oinarritutakoa landu

P.2.2. Hiritar guztiei etxebizitzara sarbidea erraztea

P.2.3. Landa lurren bokazioa eta jasate ahalmena errespetatzea

P.2.4. Udalerria berdez kolonizatzea

I.E.3. MUGIKORTASUN ETA GARRAIO MODU ONURAGARRI BATERANTZ

P.3.1. Oztoporik gabeko irisgarritasun unibertsala bermatzea

P.3.2. Joan etorriak zentzuz eta modu aktiboan egitea erraztea

P.3.3. Mugikortasun seguruago eta adeitsuagoa bultzatzea

I.E.4. BABESTU, BALORATU ETA LEHENGORATUTAKO INGURUMEN OSASUNTSU ETA OREKATU BATERANTZ

P.4.1. Natur eta paisaia ondasunen babesa eta lehengoratzea

P.4.2. Ingurumen kalitatea babestea eta klima aldaketaren borrokan erantzukizuna hartzea

P.4.3. Arriskuaren plangintza eta kudeaketarako tresneriaren diseinua egitea eta martxan jartzea

I.E.5. BIZI-ZIKLOA ITXIZ, KONTSUMO EREDU ZIRKULAR BATERANTZ

P.5.1. Uraren ziklo integralaren hobekuntza, bere hartunea eta ingurunerako itzul puntura bitarte

P.5.2. Hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena areagotu

P.5.3. Energia berriztagarrien eta energi aurrezpen zein eraginkortasunaren sustapena

P.5.4. Ingurumenarekiko eta gizarte aldetik arduratsuak diren erosketa eta kontsumoen sustapena

I.E.6. INGURUNEAREKIN HARMONIAN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATUKO DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATU BATERANTZ

P.6.1. Ekonomi garapenaren bultzada eta ekonomi sektore txirotuen berreskuratzea

P.6.2. Enpleguaren sustapena eta ekintzaitasunaren babesa

I.E.7. GUZTION ONERAKO GIZARTE ANITZ, ETIKO ETA BIDEZKO BATERANTZ

P.7.1. Gizarte zerbitzuak bermatzea

P.7.2. Zahartze duin eta osasuntsua erraztea eta hirugarren adinekoen giza kapitala agerian jartzea

P.7.3. Aniztasunean, parekidetasunean eta aukera berdintasunean eraikitako bizikidetzaren sustapena

I.E.8. UDALERRI DINAMIKO, AKTIBO ETA EUSKALDUN BATERANTZ

P.8.1. Hezkuntza eta sustapen soziokulturaleko ekipamenduak egokitzea

P.8.2. Euskararen erabilera eta transmisioa areagotzea eta sendotzea

IL.1. HERRITARREN ESKURA DAGOEN TOKIKO ADMINISTRAZIO GARDEN, ERAGINKOR, ZEHARKAKO ETA PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO BATERANTZ

P.1.1. E-administrazio garden, eraginkor, hurbilago eta zeharkakoan aritzea

1.1.1. Espediente kudeaketa telematikoak orokortu

1.1.2. Web orria eta 2.0 aplikazioak eguneratuta mantendu

1.1.3. Udaleko organigraman Barne Kudeaketa Taldearen egitura egonkortu

1.1.4. Sailetako egituretan Barne Kudeaketa Taldea txertatu eta informazioa elkartrukea indartu

P.1.2. Agenda 21en kudeaketa aktiboa burutzea

1.2.1. Existitzen diren parte hartze mahaietan TA21 txertatzeko mekanismoak garatu

1.2.2. Tokiko Ekintza Plan 21aren jarraipenerako batzorde irekia eratu

1.2.3. Zeharlerrotasunean sakontzeko mekanismoak ezarri

1.2.4. Eskolako Agenda 21a gizarteratu

P.1.3. Herritarren partaidetza ahalbidetzea eta sustatzea

1.3.1. Parte-hartze marko orokor eta jarraia ezarri, parte-hartze ordenantza diseinatuz

1.3.2. Demokrazia zuzeneko praktketan sakondu, kontsulten eta herri galdeketa gaineke akordio politikoa eta egikaritzea lortuz

P.1.4.

Elkartegintza sustatzea eta sendotzea

1.4.1. Elkarre ezberdinek antolatzen dituzten ekintzak koordinatzeko mekanismoak ezarri

1.4.2. Elkarre udal erregistroa sortu

1.4.3. Ko-kudeaketa ereduak sakondu

P.1.5.

Auzogintza eta garapen komunitarioa indartu

1.5.1. Auzoetako diru partida mantendu

1.5.2. Auzoen memoria berreskuratu eta ikertu

1.5.3. Auzogintzarako espazioak sortu

I.E.2.

LURRALDEA ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BATERANTZ

P.2.1. Hirigintza orekatua, barneratzailea, malgua, osasuntsua eta partaidetzan oinarritutakoa landu

2.1.1. Udal planen bateragarritasuna lortzeko batzorde bilera komunak egin

2.1.2. Irimo proiektua -Hirigintza ulertzeko eta eraldatzeko parte hartzeko prozesu berritzailea- garatu

2.1.3. Hiri eredu iraunkorrerako bidea partaidetza bidez landu

2.1.4. Hiritar guztiek espazio publikoan berdintasunez parte hartzeko baldintzak ezartzea

P.2.2. Hiritar guztiei etxebizitzara sarbidea erraztea

2.2.1. Alokairu sozialerako etxebizitzak eskuratzeko aukera aztertu

2.2.2. Udal mailan etxebizitzaren nagusi eta errentarien arteko bitarteko lanak egiten jarraitu (Etxebideri ez dagokion kasuetan)

P.2.3. Landa lurren bokazioa eta jasate-ahalmena errespetatzea

2.3.1. Nekazal bokazioa duten lurzoruen zaintza bultzatu

2.3.2. Nekazal bokazioa duten lurzoruen babeserako lurzorua eskuratu

2.3.3. Araua Subsidiarioak Plan Orokor bihurtzeko prozesuan lurzoru hiritar eta urbanizagarrien proportzioa ez handitu

P.2.4. Udalerrria berdez kolonizatzea

2.4.1. Zuhaitzen inbentarioa burutu

2.4.2. Udalerriko hiri-zuhaitz eta berdeguneen diseinua, kontserbazioa eta erabilera definitu eta saretu

2.4.3. Santa Barbara parkeko Plan Berezia idatzi eta garatu

P.2.5.

Kultur ondarea babestea

2.5.1. Udalerriko kultur ondarearen inbentarioa burutu maila etnografikoan

I.E.3

MUGIKORTASUN ETA GARRAIO MODU ONURAGARRI BATERANTZ

P.3.1. Oztoporik gabeko irisgarritasun unibertsala bermatzea

3.1.1. Irisgarritasun plana oinarri hartuta, kanpo auzoetako eta herriguneko espaloien irisgarritasuna bermatzeko neurriak ezarri

P.3.2. Joan etorriak zentzuz eta modu aktiboan egitea erraztea

3.2.1. Semi-peatonalizazioaren aukerak aztertu

3.2.2. Eskolara modu aktibo eta autonomoan joatea bultzatu

3.2.3. Udal jarduerarako bizikleta elektrikoak eskuratu eta hauek maileguan uzteko zerbitzuaren aukera aztertu

3.2.4. Bizikleta-aparkaleku estaliak egokitzea aztertu

3.2.5. Auzobusa zerbitzuaren etengabeko hobekuntza ziurtatu

P.3.3. Mugikortasun seguruagoa eta adeitsuagoa bultzatzea

3.1.1. Bidegorriaren erabilera egokirako seinalizazioa hobetu

3.3.2. Mugikortasun arduratsu eta bizikidetsua sustatzeko informazio eta sentsibilizazio neurriak landu

3.3.3. Eragileekin batera mugikortasun urria duten pertsonen aparkalekuen arautzea landu

I.E.4.

BABESTU, BALORATU ETA LEHENGORATUTAKO INGURUMEN OSASUNTSU ETA OREKATU BATERANTZ

P.4.1.

Natur eta paisaia ondasunen babesa eta lehengoratzea

- 4.1.1. Irimo-Santa Barbara inguruko natur ondarearen azterketa egin
- 4.1.2. Udalerriko errekaetako korridore ekologiko gisa duten funtzioaren azterketa burutu
- 4.1.3. URA Ur Agentziarekin lankidetzan ibai habitaten kontserbazioa eta lehengoratzea burutu
- 4.1.4. Flora eta fauna espezie inbaditzaileen inbentarioa egin eta hauen aurkako kudeaketa neurriak garatu
- 4.1.5. Azpiegiturek sor ditzaketen kalteak ekiditeko neurrien jarraipena burutu
- 4.1.6. Baso ustiapenetan egiten diren egur eta enborkien pilaketen ondorioz eragindako kalteak saihesteko egur parkea ezarri

P.4.2.

Ingurumen kalitatea babestea eta klima aldaketaren borrokan erantzukizuna hartzea

- 4.2.1. Airearen kalitatearen inguruko datuen ezagutza eta ulermena handitu eta zabalkundea egin
- 4.2.2. Airearen kalitatearen inguruan zeresana duten eragileekin elkarlana ezarri
- 4.2.3. INMA proiektuaren (Haurtzaroa eta Ingurumena) helburuak eta emaitzak jendartean zabaldu
- 4.2.4. Aldaketa klimatikoaren aurkako programa landu eta ezarri

P.4.3.

Arriskuaren plangintza eta kudeaketarako tresneriaren diseinua eta martxan jartzea

- 4.3.1. Ingurumen arrisku eta eraginak murrizteko protokoloak ezarri
- 4.3.2. Udal larrialdi plana eguneratu
- 4.3.3. Idatzi gabeko autobabeserako planak idatzi

4.3.4. Jarduera- eta irekitze-baimeneko espedienteak gaurkotu eta segimendua eta kontrola egin

4.3.5. Hiri izurriteak modu iraunkorrean kontrolpean mantentzeko neurriak garatu

I.E.5.

BIZI-ZIKLOA ITXIZ, KONTSUMO EREDU ZIRKULAR BATERANTZ

P.5.1. Uraren ziklo integralaren hobekuntza, bere hartunea eta ingurunerako itzul puntura bitarte

5.1.1. Baliabide hidrikoen aprobetxamenduaren ezaugarritzea burutu

5.1.2. Gune diseminatuan isurketen inbentarioa eta ezaugarritzea burutu

5.1.3. Tokiko administrazioan uraren erabilera arduratsu eta zentzuzkoa burutu

P.5.2. Hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena areagotu

5.2.1. Hondakinen prebentzioa (murrizketa eta berrerabilpena) sustatzeko ekintzak ezarri

5.2.2. Berreskuragarriak diren zatikien bilketa handitzeko ekintzak ezarri

P.5.3. Energia berriztagarrien, aurrezpenaren eta eraginkortasunaren sustapena

5.3.1. Udal eraikinen efizientzia energetikoa hobetu

5.3.2. Kale argiztapenaren energia kontsumoak optimizatu

P.5.4. Ingurumenarekiko eta sozialki arduratsuak diren erosketa eta kontsumoen sustapena

5.4.1. Herritarren sektore desberdinak sentikortu iraunkortasunaren bidean

5.4.2. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen bidean prozedura estandarizatuak ezartzen hasi

5.4.3. Udalean Ekoscan araua ezarri eta mantendu

5.4.4. Udal eraikinetan ingurumen jokabide arduratsuak sustatu

I.E.6.

INGURUNEAREKIN HARMONIAN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATUKO DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATU BATERANTZ

P.6.1.

Ekonomi garapenaren bultzada eta ekonomi sektore txirotuen berreskuratzea

6.1.1. Bertatik bertara moduko proiektuekin jarraitu, hau da, lehen sektorea bultzatzea helburu duten proiektuekin

6.1.2. Txikizkako merkataritza berpizteko Bitartean elkartearekin elkarlanean jarraitu

6.1.3. Barnealdeko turismo desberdindua eta jatorrizkoa sustatzeko ekintzak bultzatu

P.6.2.

Enpleguaren sustapena eta ekintzaitasunaren babesa

6.2.1. Langabetuen egoera hobetze aldera, enpleguan konpetentziak dituzten eragileekin elkarlanean aritu

6.2.2. Enpleguan eskumenak dituzten eragileekin elkarlanean aritu emakumea lan mundura txertatzera laguntzeko

6.2.3. Emakumeei kontratazio-tramiteen kudeaketarako zerbitzua eskaini

6.2.4. Kontratazio publikoan genero ikuspegia txertatu

I.E.7.

GUZTION ONERAKO GIZARTE ANITZ, ETIKO ETA BIDEZKO BATERANTZ

P.7.1.

Gizarte zerbitzuak bermatzea

7.1.1. Krisi egoeran Gizarte-larrialdietarako Laguntzak (GLL) indartu

7.1.2. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko bideak aztertu

7.1.3. Droga-menpekotasunari aurka egiteko udal plana eguneratu

P.7.2.

Zahartze duin eta osasuntsua erraztea eta hirugarren adinekoen giza kapitala agerian jartzea

7.2.1. Hirugarren adinekoen gaitasun eta ezagutza aintzat hartu eta gizarte-eragileak izan eta gainerako eragileekin lankidetzan aritzeko bideak sustatzeko moduak landu

7.2.2. Belaunaldi arteko ekimenak burutu

7.2.3. Zahartze osasuntsurako prebentzio neurriak sustatzeko neurriak ezarri

7.2.4. Jubilatuen egoitzaren helburuak berriz hausnartu, toki aldatzeko aukerak aztertuz

7.2.5. Orduko edo aldi baterako egonaldiak errekeratzea

7.2.6. Udal kudeaketako plaza geriatrikoak gehitzeko bideak bilatzea

P.7.3.

Aniztasunean, parekidetasunean eta aukera berdintasunean eraikitako bizikidetzaren sustapena

7.3.1. Bizikidetzeta eta Immigrazio Plana garatu

7.3.2. Harrera plana martxan jarri

7.3.3. Emakumeen parte hartze soziopolitiko aktiboa bultzatzeko neurriak ezarri

7.3.4. Emakumea eta kirola uztartzeko ekintzak garatu

I.E.8.

UDALERRI DINAMIKO, AKTIBO ETA EUSKALDUN BATERANTZ

P.8.1.

Hezkuntza eta sustapen soziokulturaleko ekipamenduak egokitzea

8.1.1. Haurtzaindegi publikoa birkokatzeko egoitza berria eskuratu eta egokitu

8.1.2. Udalak Hezkuntza Komisionan duen papera indartu eta eskolen arteko zubi lanak areagotu

8.1.3. Musika eragileei espazio duinak eskaintzeko lokalen azterketa burutu

P.8.2.

Euskararen erabilera eta transmisioa areagotzea eta sendotzea

8.2.1. Euskararen arloko eragile desberdinak ehundu eta elkartasunean aritzeko tresnak garatu

8.2.2. Idatzizko paisaia euskalduntzeko azterketa egin eta neurri proaktiboagoak ezarri

8.2.3. Euskararen transmisioa bermatzeko gurasoei eta herritarrei zuzendutako kanpainekin jarraitu

8.2.4. Kirol eta aisialdiaren euskalduntzearen lanketarekin jarraitu

8.2.5. Udal barnean euskararen idatzizko erabilera areagotzeko eta ahozko harremanak bultzatzeko neurriak ezarri

JARRAIPEN PLANA


Helburua

Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena egitea du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, herriaren testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

Operazioak

Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aldizkako **hainbat aplikazio prozesuren integrazioa** sustatzen da, horien artean Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu egokia sortuz.



Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 6o.zk. 2006ko Urria. Ihobe.

Horrela, Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, urtero iraunkortasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta Tokiko Agenda 21ean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluazioa) baloratu eta komunikatzeko aukera ematen du, baita hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa), ahal den neurrian udalerriko aurrekontuei lotuta.

OPERAZIOA	DESKRIBAPENA	HELBURUA	ALDIKOTASUNA
TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN KALKULUA (TIA)	Euskadiko tokiko iraunkortasunaren adierazleen sistemaren urteroko kalkulua ¹ Tokiko Agenda 21en ebaluazio eta jarraipen programaren esparruan, MUGI 21 aplikazio informatikoa erabiliz.	TIAen kalkuluak ondokoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Udalerriaren egoera eta joerak ezagutu eta ebaluatzea. - Urtean zehar exekututako ekintzen emaitzak ebaluatzea. Herritarrei era argi eta errazean udalerriak iraunkortasunean duen egoera, joera eta garapen maila komunikatzea.	Urterokoa (nagusiki 2.-3. hiru hilabeteetan).
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA	Berotegi efektuko gasen inbentarioaren kalkulua Euskadiko Tokiko Agenda 21en jarraipen eta ebaluazioaren V Programan baitaratu zen.	BEG-en isurketen inbentarioaren kalkuluak Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea eta udalerriri zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea ahalbidetzen du.	Urterokoa (nagusiki 2.-3. Hiru hilabeteetan).
KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO PROGRAMEN JARRAIPENA INTEGRATZEA		Bere xedea da berotegi efektuko gasen emisioa murriztera zuzenduriko esku hartzea arautzea eta klima aldaketarekiko adaptazio neurriak hartzea.	Urterokoa (desfase urte batekin).
TOKIKO EKINTZA PLANAREN (TEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA	Metodologia estandarizatuaren eta MUGI 21en aplikazio informatikoaren bitartez ekintza Planak gauzatutako mailaren urteroko balorazioa eta analisia da. Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazioak horiek euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da. Zenbait aldagairen arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboa egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du.	Eraginkortasun handiagoa lortzearen, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du. <ul style="list-style-type: none"> - TEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. - Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzea ahalbidetzen du. - Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du. Inplikaturik dauden agente ezberdinei –politikoak, teknikoak, herritarrak- Tokiko Agenda 21en garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.	Urterokoa, behin urtebete igaro denean Plana onartu denetik (nagusiki 3. Eta 4. hiru hilabeteetan).
EMAITZAK JAKINARAZTEA	Behin iraunkortasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak Tokiko Agenda 21-i lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da: <ul style="list-style-type: none"> - Planean inplikaturikotako eragile teknikoak - gobernu taldeko kideei zein herritarrei - herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei 	Barne komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - Barnean dauden udaletako teknikariek Ekintza Plana barneratzen dutela sustatzea, xedea izanik hauek Planaren ekintzak beren jardueran txertatzea eta barne komunikazio eta koordinazioa indartzea. Kanpo komunikazioaren bitartez:	Urterokoa Urterokoa/ Lau urtean behinekoa (Iraunkortasun Txostena).

¹ Tokiko adierazle horiek eskualde mailan kalkulatzeko duen zailtasuna ikusirik, adierazleak ahal diren heinean kalkulatu dira.

OPERAZIOA	DESKRIBAPENA	HELBURUA	ALDIKOTASUNA
	<p>Nori zuzentzen zaionaren arabera txosten desberdinak egituratu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Programazio txostena - Ebaluazio txostena - Iraunkortasun txostena 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeak iraunkortasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik. - Herritarren parte-hartze organoak finkatzen laguntzea Planaren exekuzioaren jarraipenaren eta ondorengo programazioaren bitartez. - Herritarren parte-hartzea sustatzea jardueren urteko programazioaren prozesuan herritarrak integratuz. 	
TOKIKO AGENDA 21AREN KALITATEAREN NEURKETA (tak21)	<p>tak 21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko eta ezagutzeko sistema da. 5 ezaugarriren balorazioen bitartez definitzen da: ezaugarri estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak, operatiboak eta jasagarritasunekoak.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bidezko diagnostiko baten bidez Tokiko Agenda 21en plangintza hobetzea. - Eskualdean hoberen dauden alderdiak eta hobetu daitezkeenak antzematea. 	Urterokoa
EKINTZEN PROGRAMAKETA	<p>Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa Goiekiren aurrekontuari eta barnean dauden zerbitzuen kudeaketari lotzea. - Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea. - Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar eskualdeaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak. - Tokiko Agenda 21 prozesua eskualde eta udaletako teknikarien multzo osoaren aurrean ikusgarriagoa egingo duten eta haiengandik hurbilago kokatuko duten hurbileko denbora-mugarriak eskura izatea. 	Urterokoa (nagusiki 4. hiru hilabetean).
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA	<p>Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planaren helburu zein ekintzak iraunkortasunari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea. - Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea. - Eskualdeko ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea. 	4 eta 8 urte artean (aldakorra udalerraren arabera).

“MUGI 21” Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan

MUGI 21 Udalsarea 21eko udal-kideentzat neurrira diseinatutako eta garatutako **aplikazio informatikoa** da. Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta jarraipen prozesu garrantzitsuenen kudeaketa integratua errazten du, alegia, Planaren ebaluazioa, adierazleen kalkulua, ekintzen programazioa eta Planaren azterketa (planifikazioa).

Badaude, gainera, bestelako tresna batzuk, hala nola, Tokiko Jasangarritasun Adierazleen kalkulurako Metodologia, tak21 aplikazio informatikoa edo Tokiko Ekintza Planen Ebaluazio eta Jarraipen Plana besteak beste, kudeaketa eredu honen lanen garapenean laguntzen dutenak.

Nork hartzen du parte planaren kudeaketan?

Ekintza Planaren kudeaketa prozesuan beharrezkoa da ondorengo konpromisoa:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. - Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena. - MUGI 21en inguruko dokumentu eta informazio kudeaketa. - Programazio txostena egitea. - Udalsarea 21ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea.
INPLIKATUTAKO ERAGILEAK	Personal teknikoa edo Ekintza Planaren exekuzioan inplikaturako hautetsiak, udal enpresak eta udal eskuduntzak bere gain dauzkaten eskualdeko entitateak.	<ul style="list-style-type: none"> - Buruturiko Ekintza Planari loturiko jarduera guztien identifikazioa. - Integraturako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa. - Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.
EBALUATZAILEA	Prozesua ebaluatzeko propio esleitutako personal teknikoa, lan hori burutzeko gaitasun bereziak izan behar dituenak. Rol hau Goiekiko teknikari batek bete dezake, baina hobe da entitatetik kanpoko eragile batek egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesuaren koordinatzaileari metodologi laguntza ematea. - Prozesuaren hasierako aurkezpenari eta eragileei irizpideak emango dizkien prozesu bukaerari laguntza ematea. - Metodologi gidan ezarritako irizpideen arabera ekintzen exekuzio mailaren ebaluazioa. - Prozesuaren kalitatearen kontrola eta metodologi irizpideen gutxiengoa betetzearen balidazioa. Beharrezkoa izanez gero, koordinatzaileari laguntza ematea.